

# Doluak

Ukazioa, amorrua, negoziazioa, depresioa eta onarpena. Adituek diote doluak bost fase dituela, eta ez beti hurrenez hurren. Hauxe duzu marko teorikoa: “Ez zara zu, zure marko teorikoa da”. Bere horretan oso logikoa. Zure apunteetan prozesu eskematiko eta txukuna. Eta, hori jakin arte, zu –dolua zure baitatik pasatu bitartean eta zu bere baitatik–, parranda amaiezinetan murgildu zara, insomnia sumatu duzu eta udazkeneko lehenengo suteetan erre duzu zure bizitza. Eta bizitzak, zenbait momentutan, paperezko itsasontzi baten antza hartu du. Jateko gogorik eza, ohetik ezin altxatua, lekuetara bakarrik joateko beldurra eta lotsa. Bila ibili zara, galduta, bizitzari leiho bat ireki nahian eta nagi, aldi berean.

Gertutik ezagutzen zaituztenak inguruan dituzu, baina urrun sentitzen dituzu, nahiz eta bi punturen arteko distantzia beti berbera izan. Laguntza eskatu aurretik lotsa eta beldurra; ihes egingo zenuke. Nora? Burumakur zabilta; haserre emakume indartsu eta burujabe izateko, orain, oraindik, indarririk ez duzulako aurkitu. “Badakizu denbora kontua dela”, baina minaren orainak ez du ez iraganik ez etorkizunik. Azalean eta



Haizea Nuñez

KOSMONAUTA FEMINISTA

@haizea\_nunez

Gertutik ezagutzen zaituztenak inguruan dituzu, baina urrun sentitzen dituzu, nahiz eta bi punturen arteko distantzia beti berbera izan. Laguntza eskatu aurretik lotsa eta beldurra; ihes egingo zenuke. Nora?

biografian daramatzazun orbainei heldu nahi diezu, haien memoriari eutsi eta konfiantza eduki. Zure marko teoriko berriaren parte da “gorpuztu” kontzeptua, eta oso apopilo abila zara

zu kontzeptuak diskurtsoan barnertzen.

Kandelak pizten hasia zara. Etxeko sarreran aldare pagano eta heterodoxoa jarri duzu. Bi egunean behin, *Palo santo* errea eskuan duzula, etxeko geletan barrena borobilak marrazten dituzu airean. Badira errutinak planeatu eta erdizka betetzeko gai zaren egunak. Terapiara ere joaten zara, gau batez ero moduan hilerrira joan zinetik zure burua galtzearen beldur baitzara. “Negar egin behar baldin baduzu, egin negar eta etzan lurrean, beherago ez zara eroriko. Lagunei zurekin lo egitera etortzeko eskatzen diezu eta ez naiz berriro hemendik pasako” errepikatzen diozu zure buruari, eta aurrean duzun lagun pazientziadun horri. Erabat gogaiturik kontzertu batera animatzen zara. Kanta batek itsasoaren botere sendagarria aipatzen dizu. Horretan sinetsi nahi duzu, jada, jainkoak, familiak eta estatuak sinesgarritasun guztia galdu dutelako. Pedalei eragiten diezu itsasorantz, errukirik gabeko euri-jasa botatzen duen bitartean. Sinetsi? Bai. Errealitate gordina jasanezina bihurtzen zaizunerako, erritoak. Bai baitakizu berriro dolutik pasako zarela eta hura zugandik. ■

IRAILA / URRIA 2017

## ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

PAISAIA BIZIA,  
paisaien eraikuntza.

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gasteien eta Irizketaren Departamentua



AIA, ALKIZA, ANDOAIN, ANOETA, ARRASATE, ASTIGARRAGA, ATAUN, BEASAIN, BERGARA, DONOSTIA, EIBAR, ELGOIBAR, ERRETERIA, ESKORIATZA, EZKIO, HERNANI, HONDARRIBIA, IDIAZABAL, IRUN, LEGAZPI, LEINTZ-GATZAGA, MUTILOA, MUTRIKU, OIARTZUN, OÑATI, ORDIZIA, ORMAIZTEGI, PASAIA, SEGURA, SORALUZE, TOLOSA, URNIETA, URRETXU, USURBIL, ZARAUTZ, ZERAIN, ZESTOA, ZUMAIA, ZUMARRAGA.

<http://bit.ly/2kj5JUJ>  
[www.gipuzkoakultura.es](http://www.gipuzkoakultura.es)